



Euskarazko tesien altxorra

Gure unibertsitateak eta Euskaltzaindiak antolatzen duten Koldo Mitxelena lehiaketaren II. edizioko sariak banatu dira

UPV/EHU eta Euskaltzaindiaren eskutik Euskarazko Tesien II. Koldo Mitxelena sariak banatu dituzte apirilean Euskaltzaindiaren egoitzan. Koldo Mitxelena hizkuntzalari eta euskaltzain ospetsuaren omenez sorturiko sariketa bi urtetik behin deitzen da eta euskarazko ikerketa sustatzea du xede.

Hain zuzen ere, euskal tesiek egiten duten ekarpen bikoitza azpimarratu nahi izan dute UPV/EHUK eta Euskaltzaindiak. Jakintza arloaren zabalkundean egiten duen ekarpena batetik, eta euskararen normalizazio prozesuan egiten duena bestetik. "Hizkuntzari terminologian, fraseologian eta prosa zientifikoa egiten zaion ekarpena hartzen dugu kontuan sariak ematerakoan", azaldu du UPV/EHUKo Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordea eta sariketako Giza Zientzietako epaimahaikidea izan den Gidor Bilbak.

Bost jakintza-arlotan banatuta, bost izen propio izan dira sari-tuak: Zientzia Esperimental eta Koldo Garcia, Ikasketa Teknikoetan Maite Oronoz, Jaime Zubero Osasun Zientzien jakintza-arloan, Jose Inazio Marko Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen alorrean, eta azkenik Idurre Alonso Giza Zientzietan. Irabazleek oroigarria, diploma eta 2.000 euro jaso dituzte.

Jakintza-arlo guztietan maila oso altua izan dela azpimarratu du Gidor Bilbak. "Hurrengo urteetarako erronka bat da jendea tesiak euskaraz egitera bultzatzea, horretarako baliabideak badira hainbat, eta Koldo Mitxelena Sariketarako hori sustatzeko pizgarri bat gehiago izan nahi du", gaineratu du.

Sarituei egindako galderak

1. Zergatik erabaki zenuen tesia euskaraz egitea?
2. Zeintzuk izan dira tesia burutzeko aurkitu dituzun oztoporik inportanteenak?
3. Tesia euskaraz egin izanak eraginik izan du zure ibilbide profesionalean?



Zientzia Esperimentalen jakintza-arloa

Koldo Garcia

Bartzelonako Institut de Biologia Evolutiva (CSIC-UPF) gradu ondoko bekaduna

Tesia: *Erretrovirus endogenoen detekzioa eta karakterizazioa behietan eta beste hainbat mamalioetan*

1. Euskaraz egitea aukera on bat delako. Tesia burutu nuen lan taldean, Begoña Jugo irakasleak zuzentzen duen Genomika eta Animalien Osasuna lan taldean hain zuzen ere, euskara eguneroko lan hizkuntza da eta, Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzak deitzen dituen "Euskarazko tesiak sustatzeko diru-laguntzak" medio, tesia euskaraz egitea erabaki genuen.

2. Tesiaren gaiaren inguruan dagoen informazio zientifikoa nahiko urria da eta, agian, hori izan da oztoporik handiena. Euskarari dagokionean, terminologia falta, oztopo baino, erronka aberasgarri baten moduan ikusten dut, hitz eta esapide berriak sortzeko aukera ematen duelako.

3. Orain Katalunian lan egiten nabil eta tesia euskaraz egin izanak eta Koldo Mitxelena saria irabazi izanak harrera oso ona izan dute. Egia da bakarrik ibilbidearen hasieran nagoela eta izan dezakeen eragina neurtzeko oraindik goiz dela. Baina ziur nago positiboa izango dela.

Ikasketa Teknikoen jakintza-arloa

Maite Oronoz

Informatika Fakultateko irakaslea



Tesia: *Euskarazko errore sintaktikoak detektatzeko eta zuzentzeko baliabideen garapena: datak, postposizio-lokuzioak eta komunztadura*

1. Ama hizkuntza euskara dut, ikasketa ia guztiak euskaraz egin ditut eta nire ikerkuntza taldean, IXA taldean, Lengoaia Naturalaren Prozesamendurako tresnak garatzen dira, batez ere, euskararako. Tesia euskaraz egiteko arrazoiak nahikoak izanik ere, gainera, beti gustatu izan zait hizkuntza.

2. Euskara idatzian sintaxi-erroreak detektatu eta zuzendu ahal izateko, lehenik testua automatikoki analizatu behar da. Testuaren morfologia, sintagmak eta erlazio sintaktikoak ezagutu behar dira, eta horretarako, analizatzaile linguistikoak behar dira. Lan hau ingeleserako edo erabilera zabaleko beste hizkuntza baterako egiten denean, tresna horiek normalean dagoeneko garatuta daude eta soilik erabili egin behar dira. Euskara aztertzeke, tresna horiek sortu egin behar dira oinarritik.

3. Euskaraz eta euskararako ikertzeak badu eragina. Nire ikerketa alorrean beti goaz erabilera zabaleko hizkuntzen "atzetik" eta batzuetan zaila da punta-puntakoak diren gaiak, euskaraz jorratzea. Horrek kurrikulu-ebaluazioetan kontuan hartzen dituzten hainbat aldizkarietan artikuluak argitaratzea zaildu egiten du. Gauza bitxia da, alde batetik erakundeek euskararen erabilera bultzatzen dute, eta bestetik, ez dute nahikoa baloratzen.

Osasun Zientzien jakintza-arloa

Jaime Zubero

Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakaslea



Tesia: *Goi mailako futbolari gazteen ezaugarri antropometriko eta fisiologikoen garrantzia aukeratze-prozesuan*

1. Erantzun hau erraza da. Ikasketak euskaraz egin nituen, ikerketa taldean ere euskaraz hitz egiten dugu sarritan eta euskaraz mintzatzea gauza natural moduan hartzen dut. Gainera, euskaraz hitz egitea gure esku dago. Euskarazko tesia egiteko diru-laguntza ere eskatu nuen eta horrek ere lagundu du.

2. Materiala ingelesez dago gehienbat eta euskara teknikora pasatzea zaila da. Bidea zabaltzen aritu behar izan gara. Euskara tekniko arlo jakina da eta informazio tekniko modu sintetikoan jarri behar da.

3. Dela euskaraz, dela gaztelerez, ez dut uste alde handirik dagoenik bien artean. Egia da badirela aldizkari azpimarragarriak gaztelerez, eta euskaraz egiteak bide hori oztopatu dezakeela, baina benetako inpaktua ingelesezko aldizkarietan lortzen da.

Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen jakintza-arloa

J. Inazio Marko

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea



Tesia: *Hizkuntza-erlaketaren organizazioetan: Esperientzia eta modelizazioa. dinamizazio soziolinguistikoa gizarte pedagogiarenean baitan*

1. Nire kasuan erabaki naturala izan da. Dena egiten dut euskaraz eta naturalean egin dut tesia hizkuntza horretan. Beste hizkuntza batean egitea planteatuz gero, orduan galdetu beharko nioke nire buruari zergatik egin nahi dudan hizkuntza horretan.

2. Oztopoez baino gehiago erronkez hitz egingo nuke. Bat, gaia bera metodologikoki ongi funtsatzea izan da, oinarri zientifikoa eduki dezan. Bi, terminologiaren lanketa, hainbatetan euskaraz egokitzeke edota sortzeko lana egin behar izan baita. Hiru, diskurtsoa egituratzea eta modu egokian garatzea. Lau, zuzendariekin adostutako epeak betetzea.

3. Saria jaso izanak nire ibilbide profesionala indartu dezakeela uste dudanez, euskaraz egin izanak gutxienez horretan positiboki eragingo du. Beste maila batean, euskaraz egindako argitalpenek ebaluazio agentzien aurrean balio gutxi edo bat ere ez dute. Eta egoera hori, euskaraz lan egiten duen komunitate zientifikoaren aurkako eta euskarazko produkzio zientifikoaren aurkako neurria da. Eta hala izanik, salatu beharrekoa.

Giza Zientzien jakintza-arloa

Idurre Alonso

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea



Tesia: *Literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko batxilergoan, eduki kontzeptualetatik gaitasun komunikatiboetarako bidean*

1. Euskaraz egitearena hautu naturala izan zen. Euskara da nire ama hizkuntza, eta euskaraz bizi naiz. Hortaz, ez nuen "erabaki" beharrik izan. Gainontzeko hizkuntzetan gero ere izango dugu argitaratzeko aukerarik, tesiak eman dituen ondorioez aritzeko.

2. Tesiaren diziplinartekotasunak eman dit buruko-min handiena. Literatura eta hezkuntza uztartu nahi izan ditut, eta ikuspegi soziologikotik aztertu. Ondorioz, marko teorikoa eraikitzea zaila izan da.

3. Ez dut uste. Iruditzen zait tesiaren gaiak izaten duela eragin handiena ibilbide profesionalean, ez tesiaren hizkuntzak. Hala behar luke, behintzat.